

EUSKARA NAFARROAN GAUR

Nafar errege batek *lingua navarrorum* deitu zion euskarari. Hau Nafarroako jendeen eguneroko hizkuntza zela, alegia. Errege haren erranaz gain, ordea, Erdi Aroan nafar eta euskaldun izatea loturik zeudela errateko argibide aski badugu, batez ere, Jose Maria Jimeno Jurio historialariak eskeini dizkigun xehetasunak ezagutu ondotik.

Euskararen egoera

Gaur egun euskararen egoera Nafarroan ez da, noski, aipatutako mende haietakoa. Biztanlegoaren %16a jotzen du euskaldun Siadecok, 1997ko ikerketan, euskaldun osoak eta ia osoak bilduta. Dena den, interesgarria da ikerketa horrek agertzen digun bertze hau: %70 nafarrek euskararen aldeko jarrera dute. Horren ezaugarri izaten ahal da, irakaskuntza publikoko D eredurako matrikulatzeak goiti egitea hondarreko urteetan, Iruñerrian. Ikastolen osasuna ona da, banaz-bertze. IKA eta AEKko euskaltegien lana ere hor dago, Euskara Zerbitzuena ere bai, etabar.

Eta, hala ere, azken datuen arabera, euskara Nafarroan mantendu egin da, baina ez du aitzinera egin, kopuruari dagokionez. Eta ez dugu erraten ahal, inola ere, euskara ziurtatua dagoenik. Euskararen egoerak, aintzina bezala, gibelera ere egiten ahal du. Ez da hori Nafarroako euskaltzale guziek diote-